



15 egunez mendia protagonista Oargin

TOLOSA ▶ Hitzaldiak, mendi irteerak, mendiko material azoka eta lehiaketak, besteak beste

EPEA ▶ Argazki lehiaketan parte hartu nahi dutenek, materiala etzi baino lehen aurkeztu behar dute ▶ 4



Bonbilak banatzen. E. EZEIZA

TOLOSA ▶

Kontsumo baxuko bonbilen banaketa, Zerkausian

Energiaren Euskal Erakundeak bultzatu du ekimena, kontsumo baxua bultzatuz ▶ 3



Bederatzi urtez dantza barreiatzen

ALEGIA ▶ Alegiko dantzari txiki taldeak Loatzo egunean dantzatuko du; hil honetan ere saio berezia eskaini dute Alegiko plazan ▶ 5

TOLOSA ▶

1-2 irabazi du Tolosak Santutxuren aurkakoan

Zortzigarren dira sailkapenean ▶ 2

TOLOSALDEA ▶

San Lorenzo Udaltalde 21eko logotipo lehiaketa abiarazi dute

Tokiko Agenda 21aren kontzeptua isladatuko duen logoaren bila ▶ 6

LANGILEAK BEHAR DIRA

TELEFONIA MUGIKORREKO DENDA BATERAKO

Orange

TOLOSA

Kontakturako telefona: 618 846 993

FUTBOLA ▶

1-2ko garaipena lortu du Tolosa CFk Santutxuren aurka

Sailkapenean zortzigarren postuan dira Etxeberriaren mutilak; hurrengo partida Gernika liderraren aurka dute

IÑIGO TERRADILLOS

Garaipen berri bat eskuratu zuen Tolosa CFk larunbatean, Santutxuren aurka 1 eta 2 irabazi baitzuen. 3 puntu gehiagorekin, beraz, zortzigarren dira tolosarrak sailkapenean.

Tolosatik Apeztekoa, Lakalle, Ion, Kamio, Iban, Ekhi, Elola, Romero, Crespo, Orue eta Regillaga irten ziren zelaira. Ondorengo aldaketak egin zituen Gorka Etxeberria entrenatzaileak: 34. minutuan Ekaitz Irten zen zelaira Elolaren ordez; 60. minutuan Haritz atera zen Regillagaren ordez, eta 77. minutuan Balerdi Kamioren ordez.

Santutxuk berriz, ondorengo jokalariek atera zituen jokatzera: Aritz, Tristantxo, Iparragire, Aitor, Unai, Jabi, Iraitz, Lander, Urko, Iban eta Endika. Aldaketak berriz, hauek izan ziren: Ekaitz eta Mikel.

Etxeberria entrenatzaileak azaldu duenez, tolosarrek ondo ekin zituen partidari, «konzentratuta». Dena den, Santutxu izan zen markagailuan aurrea hartu zuen taldea; «ia gure atean sartu genuela esan daiteke, baloia atearen aurrean utzi baikenien». Lehen gol horrek psikologikoki min handia egin zion taldeari, eta «zelaiak berak ere zailtasun

handiak jartzen dituenaz, beharuntz egin genuen».

Bigarren zatiaren hasieran lortu zuten berdinketa tolosarrek. Hain zuzen ere penaltia ikusi zuen epaileak eta aurkariaren atezaina kaleratu zuen. Penalti horretan Tolosarentzat Ionek gola sartu zuen. 1-1ekoa zen, beraz. «Presioaren eraginez urduri hasi ginen jokatzeko asmoagatik», dio entrenatzaileak. Hala, «behin eta berriro saiatzearen ondorioz», tolosarrek garaipenaren gola egitea lortu zuten azken unean. «Merezi genuela uste dut, etengabe siatu ginelako; aldez, Santutxuk faltak

SAILKAPENA ▶

HIRUGARREN MAILA
Taldeak.

Izena	puntuak
1. Gernika	20
2. Portugalete	20
3. Baskonia	19
4. Elgoibar	18
5. Amorebieta	17
6. Zalla	17
7. Beasain	16
8. Tolosa	14
9. Eibar B	13
10. Arenas	13
11. Lagun Onak	12
12. Santurtzi	12
13. Cultural	11
14. San Ignacio	10
15. Alaves	9
16. EHU	9
17. San Pedro	9
18. Real Union B	9
19. Laudio	8
20. Santutxu	7

baino ez zituen egin partida osoan zehar».

Hurrengo partida Gernika liderraren aurka izango du Tolosak. «Partida zaila izango da oso, hurrengo bi partidak bezala. Hilabete hau oso zaila izango da guretzat, eta eutsi egin beharko diogu».

ARETO FUTBOLA ▶

3-2 irabazi du Laskorainek Oriokoren aurkakoan

Porrotik ikusi gabeko laugarren jardunaldia jarraian burutu du Ikastolako taldeak

ERREDAKZIOA

Aurkari gogorra izan zuen larunbatean Laskorain taldeak, Nazional B mailan gol gutxien jasotako Orioko, hain zuzen. Dena den garaipenarekin amaitu zuten norgehiagokoa.

Aurkari hartu zuten aurre markagailuan areaz kanpoko jaurtiketa («bikain») bati esker. Etxekoen erantzuna, ordea, segidan etorri zen Alonsoren ezkerkadaren ondorioz, atsedendira beraz, 1-1ekoarekin joan ziren.

Taldekoek azaldu dutenaren arabera, bigarren zatia «ezin hobeto» hasi zen ikastolakoentzat. Hala, kontraraso batean, Barriolak, Telletxearen pasea haliatuz, 2-1koa ezartzeko aukera ez zuen galdu. Kanpotarren 2-2koak ez zuen gehiegi itxaron, Oriokoko jaurtiketa batek markagailua berriro ere orekatu baitzuen. Laskoraindarrek, ordea, ez zuten puntu banaketarekin konformatzeko asmorik eta Gilek azken gola egin zuen baloi bat lapurtu eta atezaina gainditu ondoren. Garaipena etxean gelditu zen azkenean, eta hiru puntu garrantzitsu eta porrotik gabeko laugarren jardunaldia segidan poltsikoratu zuten, beraz Egizabal entrenatzailearen taldeak.

Bestalde, harrobiari dago-kionez, Alonsoren mutilek 2-0 galdu zuten; Pradosek zuzentzen dituen neskek, berriz, 0-9 irabazi zuten etxetik kanpo.

XAKEA ▶

Etxeberria, Mujika eta Aginaga izan dira garaileak Urdiña-Txiki elkarteko Xake Txapelketa azkarrean

ERREDAKZIOA

Pasa den igandean Urdiña-Txiki elkarteko Xake Txapelketa jokatu zen. Hogeita bi jokalariek hartu zuten parte bertan, eskualde osoetik etorrira: Tolosa, Ibarra, Villabona, Asteasu, Anoeta, Berrobi, Berastegi, Alizo eta Alegia.

Txapelketa xake azkarrean jokatu zen, jokalariek eta partidak bakoitzeko bost minutura, alegia. Goiz osoan gelditu gabe aritu eta gero 10:00 txapelduak irabazi zuen oraingoan



Josu Mujika, Sabino Etxeberria eta Txus Aginaga, igandean. HITZA

ere, hau da, Sabino Etxeberria tolosarrak. Podiuma Josu Mujika eta Txus Aginagak osatu zuten.

Bestalde, larunbatean Gipuzkoako hirugarren mailako Txapelketako beste txanda bat jokatu zen Tolosako Xake elkartean. Iñaki Etxeberria tolosarra doa lehen postuan, txapelketa honetan, orainarteko partida guztiak irabazi ondoren. Etxeberriak bere atzetik puntu erdira Iker Rezola eta Xabier Corredera billabonatarak ditu.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ERAKUSKETA ▶

«Euskadi Europarekin aurrerantz», azken 20 urteetako garapena

Erakusketa informatzaile hau zabalik dago, jadanik, Kultur Etxean; igandera arte izango da ikusteko aukera

ESTI EZEIZA

Jadanik ikusgai da Kultur Etxeko areto nagusian Euskadi-Europa erakusketa. Gaurtik igandera bitartean, 17:30etik 20:30era joan ahal izango da hau ikustera.

Antolatzaileen hitzetan, «erakusketa honen helburu nagusia da 1986tik hona, hau da, Euskadi Europar Batasunean sartu zenetik gaur arte, izan diren aurrerapenak laburki eta modu orokorrean azaltzea». Honekin erakutsi nahi dutena da, Euskal Autonomia Erkidegoa «bi hamarkada hauetan aurrerantz» doala, eta Europar Batasuneko kide izateak laguntzen duela.

Erakusketa 24 taulez osatutako sekuentzia bat da. Hauekin batera, erdigune gisa, totem okertu eta argitsu bat dago. Honek, erakusketaren inguruko zenbait argibide aurkezteko balio du.

Modu zabalean, azaletik, arlo ezberdinen inguruko informazio ematen da taula hauetan. Hasteko, Europar Batasunak zer suposatzen duen, eta honen sorrera nondik datorren azaltzen du. Ondoren, *Euskadi Europarekin aurrera doa* izenburupean, azken hogeitau urte hauek laburbiltzen eta deskribatzen dituen hogeitau agertzen dira erakusketan. Horien artean jorratzen dira: erakundeak, eurogunea, Europako Konstituzioa eratzeko egindako ituna, garapenerako laguntzak, kultura eta hizkuntza aniztasuna, salgaien zirkulazioa, enplegua,



Taulak. Erakusketa, 24 taula informatiboz osatutako sekuentzia moduan egituratua dago. E. EZEIZA



Euskadi Europarekin aurrera. Erakusketaren aurkezpen gisa, totem honetan laburpen bat egiten du. E. EZEIZA

ENERGIA ▶



Baserriko produktuak argituz

E. Ezeiza ▶ Ohiko baserriko produktuak ezezik, kontsumo baxuko bonbilak, nahiz kontseilu liburuak ere eskuratu ahal izan ziren atzo goizean Zerkasun. Energiaren Euskal Erakundeak, kontsumo baxuko banaketaren baitan, 270 bonbila, eta beste horrenbeste liburuxka banatu baitzituzten atzo, 10:00etatik 13:00etara bitartean hiritarren artean. E. EZEIZA

KULTURA ▶



Artxiboa denentzat ikusgai

E. Ezeiza ▶ Gipuzkoako Artxibo Orokorrek atek zabaldu zituen atzo bere instalakuntzak ikusi ahal izateko. Jarduera hau, Tolosaren 750. urteurrenako ospakizunen baitan antolatuta ditzute. Euskaraz nahiz gaztelaniaz, hiru saio ezberdinetan ikusi ahal izan zuten herritarrek Artxibo Orokorra. E. EZEIZA

iragarki laburrak ▶

BASABI Inmobiliaria
Pablo Gorosabel, 40
Lathasa - 7. Inbalegia
20400 TOLOSA
Tel. eta Faxa: 943 65 95 97
mug.: 669 368 994

Alegia. Eraikuntza berriko pabilioiak. 350m²etatik hasita.
Anoeta. Harrizko ebean 90 m²ko etxebizitza eraberritzeko, kanpora begira.
Belauntza. Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.
Belauntza. Bifamiliarra, bi solairu eta 270 m²ko lursailarekin.
Berastegi. Familia bakarreko etxea salgai, 3.500 m²ko lursailarekin.

Berrobi. Behe solairuko etxebizitza. 50 m²koa. 117.200 euro.
Tolosa. Pablo Gorosabel. Gela bateko apartamentua. Garajea aukeran.
Tolosa. Zabalarreta. Etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, terraza, bainugela, komuna, trastelekua eta garaje ibxia.
Tolosa. Errementari kalean etxebizitza salgai. Eraberritua. 2 logela, 24m²ko egongela, bainugela eta sukaldea.

Tolosa. San Frantzisko, 75m²ko atikoa salgai. Eraberritzeko.
Tolosa. Errementari kalean, 3 logelako atikoa. Egongela, sukaldea, eta bainugela. Berritua.
Tolosa. Benta Haundin, bi solairuko etxebizitza salgai. Eraberritzeko.
Tolosa. Santa Klara, 90 m²ko etxebizitza salgai. 4 logela, sukaldea, egongela eta bainugelarekin.
Tolosa. San Esteban auzunean, kanpora begirako 100m²ko

etxebizitza salgai. Berritu egin beharra dago.
Tolosa. 15 garaje berri, guztiak itxiak.
Belate inguruan.
Tolosa. Belate. Trasteleku berriak, argia eta aire erazgailuarekin. 9.480 eurotik aurrera.
Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m²ko bulegoa alokairuan.
Tolosa. Ugarran Goena, bi bizitzako baserria salgai, 110m² solairu bakoitzeko. Berritu beharrekoa.

TOLOSA ▶ KIROLA

Guztia prest Oargi elkartearen mendi hamabostaldirako

Datorren astelehenean hasi eta abenduaren 3ra arte azoka, hitzaldiak eta argazki lehiaketa izango dira, besteak beste



Iazko mendiko material azoka, Oargi elkartearen. LEIRE MONTES

ERREDAKZIOA

Datorren astean ekingo diote Oargi elkartearen ohiko mendi hamabostaldiari. Hala, astelehenean hasi eta abenduaren 3ra bitarte mendia izango da ardatz elkartekoen artean. Hala ere, ez da elkartekoetara mugatzen eta herritar guztiei mendiarekiko zaletasuna piztea dute helburu hamabostaldi honen bitartez.

Hil honen 17a baino lehen Oargi antolatutako argazki lehiaketa parte hartzeko aukera dago. Horretarako mendia eta natura gaitzat duen argazkiak aurkeztu ahal izango dituzte interesatuek Karlis argazki dendan. Hamabostaldia irauten duen artean lehiaketa parte hartu dutenen argazki erakusketa ezarriko dute. Oargi. Eta irabazleentzako sari banaketa abenduaren 3an burutuko dute, 17:00etan, Oargin.

Hilaren 20tik 26era, berriz,

HITZALDIAK ▶

OSTEGUNA, HILAK 23

19:30. Kultur Etxean, Iñak Obxo de Olzak *Bajo los cielos de Asia* hitzaldia eskainiko du.

ASTEARTEA, HILAK 28

19:30. Kultur Etxean, Leire Agirre eskalatazalearen hitzaldia izango da.

OSTEGUNA, HILAK 30

19:30. Oargin, Angel Jose Martinez eta Koldo Alava Al filo de lo imposibleko kideek *Cañones y barrancos de Euskal Herria* hitzaldia eskainiko dute.

OSTIRALA, ABENDUAK 1

19:30. Kultur Etxean, Eric Lopez eskalatazalearen hitzaldia izango da.

mendiko material azoka antolatu dute, Oargin bertan. Materialaren bilketarako 637 83 03 80 telefono zenbakira deitu behar da. Asteazkenean zehar 18:00etatik 21:00etara irekiko dituzte atea; larunbatean, 16:00etatik 21:00etara eta igandean ordu-bete gutxiago izango dute interesatuek, 20:00ak arte, alegia.

Abenduaren 2an ere izango da zer gozatua. 16:00etan eskalada txapelketa antolatu baitute Oargin. Eta hurrengo egunean, igandearekin, Uzturrera igoko dira, Oargitik. Ondoren bazkaria egingo dute, Oargin bertan.

VILLABONA ▶

Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa, bihar

18:00etan, Gurea aretoan izango da 20 etxebizitzaren zozketa, jendaurrean

ERREDAKZIOA

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren behin-behineko kalifikazioa lortu ondoren, notario aurreko zozketa egingo dute, Fleming esparruan eraikitzen ari diren babes ofizialeko 20 etxebizitzak esleitzeko ordena zehazteko helburuarekin.

Aipatutako zozketa jendaurrean egingo dute, hain zuzen ere, bihar 18:00etatik aurrera, Villabonako Gurea aretoan.

Informazio gehiago 943 21 23 54 telefono zenbakian lor daiteke.

TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinikak 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

AHTrik ez, stop kapitalismoari!

AHT Abiadura Handiko Trenaren ondorio larriak ekonomian, nekazaritzan, ingurumenean, lurraldearen orekan, garraio eremuan... azken batean, AHTk herritarren bizi kalitatean eragingo litzukeen kalteak, benetan, eragotzi nahi baditugu, ezinbestean, politika iraultzaile batekin borrokatu behar ditugu. Hau da, AHTren kontrako oposizioa, bestelako jendarte garapen ekonomia eredu arras ezberdin baten aldeko borrokaekin, zehatzago esanda, kapitalismoaren aurkako eta sozialismoaren aldeko borrokaekin lotu behar dugu.

Kapitalismoa ekoizpen indarraren jabetza pribatuan eta irabazi maximoaren legean oinarritzen da. Honek, aberastasuna eta boterea gutxiengo baten eskuetan gero eta gehiago pilatzea dakar. Etekin enpresarialak eta pribatuak, herritarren

ongizatearen, demokraziaren edo herritarren iritzia... eta ingurumenaren gainetik jartzen ditu kapitalismoak. AHT guzti honen adibide esanguratsua da. AHT tren garraio eredu bat da, garraio eredu batek jendarte garapen modu bati erantzuten dio. Jendarte eredu oinarrian ekonomia da. Eta egungo Euskal Herriko eta munduko ekonomia eredu nagusia: kapitalismoa da.

Munduko ekonomiaren kontrola esku gutxiaren menpe dago. 500 enpresek munduko BPG Barne Produktu Gordinareneko %52a egiten dute. Eta ekoizpen kapitalista ez dago plan ekonomikoko batean oinarritua, merkatuaren funtzionamendu anarkikoan baizik.

Kapitalismoa desegin behar dugu. Kapitalistak konbentzitzea ezinezkoa da. Inoiz ez du klase agintari batek borondatez bere pribilegioei uko egin. Banku, nazioz gaindiko korpo-

razio eta enpresak espropiatu behar ditugu eta, aberastasun guzti hori langile eta zapaldeen eskuetan jarri. Horrela, soilik, demokratikoki ekonomia planifikatzea, herriari bere erabaki propioak hartzeko ahalmena ematea, herritar guztien beharrak asebate, eta baita naturaren mugak errespetatzea ere posible litzateke. Bestelako Euskal Herri berri bat, mundu berri bat eraikitzea posible da. Euskal Herrian, AHT gelditzearen alde... eta ahal diren erreporte sozial guztiak egin dituen euskal burgesia nazionalaren aurka egin behar dugu. PNVk historikoki, ororen gainetik, bere klase interes, bere poltsikoa jarri eta jarriko duela erakutsi digu. Euskal burgesiak, ezeri baino lehen bere irabaziei begiratzen diena, ezta bere sistema kapitalistak ere ezin du arazo bat bera ere konpondu. Borroka ezberdinak sozialismoaren aldeko borrokaekin lotzea behar-beharrezkoa dugu. Arazo

sozialak bezala baita arazo nazionalaren konponbidea ere, herritarren gehiengoaren langile klasea, programa iraultzaile, sozialista eta internazionalista batean elkartuz bakarrik etorriko da. Langile klasea eta ikasleak elkartuta, baita muga nazionalen gainetik ere, boterea hartuko dugu eta gizarte berri bat eraikitzen hasiko gara.

Horrela, Abiadura Handiko Trena bezalako eta baita bestelako kapitalismoaren ondorio kaltegarrien aurka ere egingo dugu. Horregatik, AHT Gelditu! Elkarlanak antolatu duen AHTren obren hasiera salatzen datorren larunbateko manifestazioan, Azaroaren 18an, Gasteizen, Iparralde Gizarte Etxetik abiatuta, arratsaldeko bostetan parte hartzeko deia egiten dugu. Jo eta ke sozialismoak irabazi arte!

MANU ODRIOZOLA ▶ ANOETA KO AHT GELDITU! ELKARLANAKO KIDEA ETA EUSKAL HERRIA SOZIALISTA ALDIZKARIAREN IZENEAN

ALEGIA ▶ KULTURA

Hamaika pauso eginda

Bederatzi urte egin berri ditu Alegiko dantzarien taldeak: atzean dauden guraso komisioko kideek emandako bultzada ezin da ia hamarkada honetan ahaztu



Alegiko Dantzari Txiki egunean plazan 140 dantzariak batera ere dantzatu zuten. HITZA

NEREA URBIZU

Azaro Kulturalak Alegian denetatik ikusteko aukera zabaldu du. Kasu honetan, herriko bertako dantzariari omenalditxo bat egiteko aukera zabaldu du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK.

Bederatzi urte baditu jada Alegiko dantzarien taldeak. 25 dantzari osatuta dago eta 6 urtetatik hasita 16 urte bitartekoetarakoak daude. Baina, eskolako guraso komisioko kide batzuen arabera, «nahiz eta txikien artean horrenbeste dantzetan ez hasi, helduak mantendu egiten ari dira».

Garazi Bengoetxea da dantzariari eskolak emateaz arduratzen dena, Villabonako bera. Badira, ordea, guraso ko-



Nati Murua eta Marta Iraola Alegiko dantza taldeaz hizketan. N. URBIZU

misioan dauden 25 kide, isilpean dauden indarrak eta herriari mugimendua eragiteko balio duten pertsonak, hain zuzen ere.

Zortzi urte daramatzate dantza taldeari laguntza ematen: «Hasieratik gu gaude horretan saiatzen: momentu berezietan 25 gurasoak elkartzten gara,

baina hiru gabiltza gehiengotan». Nati Murua, Marta Iraola eta Mari Jose Iriarte dira beti dabilzen hiru horiek.

Diru-laguntzak jasotzen dituzte dena posible egin ahal izateko: Iturriotz iturgintzak, Becker-Ederfil-ek eta Alegiko Udalak ematen dituzte. Honela aurtun, errege bezperan, Anoetako festetan, herriko festetan, Kalebeherakoetan, Villabonako Santioetan, Uema egunean, eta Azaro Kulturalean dantzatu ahal izan dute. Hurrengo, Loatzo egunean.

Dantzari Txiki eguna

Alegiko lehenengo Dantzari Txikien eguna antolatu zuten hilaren 4an, eta herri askotako dantzariak gobidatu zituzten: «Anoetakoak, Villabonakoak, Irua, Alto, Tolosa, Ibarraoak eta herrikoak bertakoak izan ziren. Usurbilgoek azkenean ez zuten etortzerik izan. Guztira 140 dantzari ibili ziren herrian».

Horientzat egun berezia ospatu zuten: dantzaldia plazan egiteaz gain kalejiran ibili ziren, bi taldetan banatuta. Hau egin aurretik «askaria eman genien». Ez dute azpimarratu gabe utzi nahi izan Nati Murua eta Marta Irazustak, denen izenean beti ere, «eskerrak eman nahi» dizkietela alde batetik «Tolosako Maxi Eroskiri askariak emateagatik, eta Tolosaldea autobusei, horrela dantzari guztiek Alegiara etortzea posible izan zutelako».

Hurrengo urteari begira «beriz egingo genuke, aurtengo laguntza eta gogoekin behintzat bai».

Izenik gabeko dantza taldea da Alegikoa. Hurrengo urtean 10 urte beteko ditu, eta, nork daki: oparia izen bat ematea izan daiteke...

ALBIZTUR ▶

Loari buruz hitz egingo dute gaur, Kultur Etxean

Loa: Adineko pertsonen ondo lo egin beharra hitzaldia izango da gaur, Jose Luis Martinekin, Albizturgo Kultur Etxean. 17:30ean hasiko da; antolatzailea Kutxa eta kolaboratzailea Nazaret zentroa da. Helburuak hauek dira: ondo lo egiteak duen garrantziaz informatzea eta ondo lo egiten irakastea, atsedenaldira atsegin bat lortzeko jarraibideak erakutsiz. Sarrera doakoa da.

AMEZKETA ▶

Hezurren berri eta artrosiaz gehiago jakiteko

Bihar Amezketako Jubilatuen elkarteak hitzaldi bat eman- go du Izaskun Arrillagak: *nola eraman artikulazioen higadura izena* du hitzaldiak. Urteak aurrera, adinak hezurretan uzten dituen aztarnak ezagutzea eta jarraibideak markatzea dira hitzaldiaren helburuak. 19:00etan izango da. Antolatzailea Kutxa eta kolaboratzailea Nazaret zentroa da; sarrera doakoa da.

MUSIKA ▶

Loatzo musika eskolak Santa Zezilia buruan

Etzi Loatzo Musika Eskolako ikasleak 18:00etan Adunako plazan bilduko dira kalejira egiteko. Larunbatean, aldiz, 09:30ean Ibarrao plazan eta baita Villabonakoan ere, bilduko dira. Loatzo eguna Alegian izango da, 12:00etatik aurrera. Bertan kalejira erraldoia egingo dute eskolatik hasita. Hilaren 21ean, aldiz, Iruran eta Anoetan egongo dira kalejiran, Iruratik hasita, 17:30ean.

VILLABONA ▶ HALTEROFILIA

Igor Sasiain Espainiako txapelduna

Danena-Olaederra taldeko beste askok ere sariak eskuratu dituzte

ERREDAKZIOA

Igor Sasiain A Coruñan (Galizia) lehiatu zen Espainiako Halterofilia Txapelketan. 15 azpikoan 62 kiloko mailan irabazte izan zen billabonatarra.

Bigarren urtea du irabazte maila honetan. Danena-Olaederra taldeak, bestalde, emaitza onak jaso zituen: Euskadiko marka berria jarriz Iker Hernandezek 45 kilotokoa lehena

izan zen. Julen Intxausti billabonatarra ere bigarren izan zen beste proba batean.

Tolosan Euskadiko Kopako 17 urte azpikoena burutu zuten eta honetan Jon Ander Iriartek lehenengo sailkatu zen eta Angel Martinezek hirugarren egin zuen. Gipuzkoako selekzioarekin Danena-Olaederrako hainbat kirolari joan ziren: Anjel Martin, Mikel Kintana, Jon Ander Iriarte, Kellyam Kintana eta

Adrian Sasiain. Jon Tecedorrrek lehenengo egin zuen, eta hirugarren, aldiz, Teddy Martinezek.

Bestalde, hilaren 4an Zarautzen klubean arteko txapelketa egin zuten eta bertan Danena-Olaederrak irabazi zuen. Horretan Jon Tecedorrrek, Gorka Lopezek, Daniel Legorburuk, Aritz Salaberriak, Jon Ander Iriarte, Igor Sasiainek eta Jokin Urkizuk hartu zuten parte.

ALEGIKO ZAHARREN EGOITZA EDARITEGIA

Alegiko plaza • Tel.: 943 65 58 00
Gosariak, pintxoak, meriendak eta... GIRO JATORRA!

AGENDA 21 ▶

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Mankomunitateak, Tokiko Agenda 21a San Lorenzo bailarako —Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain eta Ibarra— herritarren artean identifikatu eta sinbolizatu dadin, logotipo baten diseinurako lehiaketa antolatuta du.

Lehiaketa orotan bezala, hainbat oinarri ezarri dituzte antolatzaileek parte-hartzaileentzako. Lehenik eta behin, lehiaketan parte hartu nahi duen ororentzat dago irekia, edonork bidali ditzake logoak, alegia.

Lehiaketako gaiari dagokionez, logoak *San Lorenzo 21* lema jaso beharko du. Era berean, Tokiko Agenda 21aren kontzeptu eta filosofia isladatu beharko ditu, garapen iraunkorra, ingurumenarekiko errespetua eta herritarren partaidetza bezalako kontzeptuak, besteak beste.

Lanak identifikatzerako orduan, argazkiak orijinalak izan beharko dute; beraz, ezingo dira alde zuzenetik argitaraturiko edo sarituriko lanak aurkeztu. Gogoratu, lehiakide bakoitzak gehienez bi logo proposamen aurkeztu ahal izango dituela. Lanak aurkeztzerako orduan, euskarri informatikoan egin beharko da, jpg formatuan, hain zuzen. Lanak, gutun itxian bidali beharko dira eta barruan egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa agertu beharko dira.

Lanen bidalketari dagokionez, Tolosaldeko Mankomunitatean —San Bartolome 2, Ibarra— eskuz ala postaz aurkezteko, beti ere, behar bezala babestuta. Bi kasu horietan, honako helbidea idatzi beharko da gutunaren azalean: Tolosaldeko Mankomunitatea, San Lorenzo Udaltalde 21, San Bartolome 2, 20400 Ibarra (Gipuzkoa).

Nahiago izanez gero, e-mail bitartez ere bidali daitezke lanak honako helbidera: sanlorenzo21@euskalnet.net. Gogoratu, lanaren jabeak datu pertsonalak eta telefonoa zein diren adierazi beharko dituela.



MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

San Lorenzo Udaltalde 21eko logotipo lehiaketa martxan da

San Lorenzo 21a gaitzat harturik, Tokiko Agenda 21aren kontzeptu eta filosofia isladatu beharko dituen logoa abenduaren 4a baino lehen aurkeztu beharko da



Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain eta Ibarra dira San Lorenzo Udaltalde 21ean parte hartzen duten herriak; irudian, Ibarra. IÑIGO TERRADILLOS

Antolatzaileek logotipoaren batera logoaren inguruko azalpen txiki bat erantsi daitekeela proposatu dute. Azalpen txiki horrek ordenagailuz idatzia izan beharko du eta lanaren ulermena eta ebaluazio hobea egiteko asmoz egin beharko ditu logoaren egileak.

Parte-hartzaile guztien artean lanik onena zein den erabakiko duen epaimahaia, San Lorenzo Udaltalde 21eko arduradunegaz osatua egongo da. Epaimahaiaren esku geratzen da, hala erabakiz gero, saririk ez ematea. Aipatu, saritutako lana Mankomunitatearen esku

geratuko dela eta nahi duen erabilera emango diola.

Gogoratu, aurkeztutako logoean ikusgarritasun bisuala eta adierazpen sinbolikoaren indarra izango direla epaimahaiko kideek lanak epaitzerakoan gehien baloratuko dituzten kontzeptuak.

Sarituriko lana bakarra izango da eta irabazleak 600 euro jasoko ditu ordainetan. Lanak aurkezteko epea abenduaren 4ean amaituko da eta irabazlearen izena abenduaren 15ean emango da jakitera. Argazkiak abenduaren 18tik aurrera jaso ahal izango dituzte.

San Lorenzo Udaltalde 21a

2006ko otsailaren 13an Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain eta Ibarra udalerriek San Lorenzo Udaltalde 21 eratzeko lankidetzara hitzarmena sinatu zuten Iñobe eta GFArenkin batera. Prozesua, ordea, irailean jarri dute martxan.

Une honetan, aholkularitza-entresa kontratatzeke fasean aurkitzen da San Lorenzo Udaltalde 21, prozesuaren lehenengo postuan da, beraz. Datoren egunetan erabakiko da nor izango den esleituduna.

San Lorenzo bailarako partaide den herri bakoitzak, Udaltalde 21eko partaide izateaz gain, nor bere Tokiko Agenda 21a izango du. Tokiko Agenda 21a, Udala kudeatzeko tresna bat da eta bere helburua, Udalak herritarrekin batera datozen urteetan herrian egingo diren ekintzak definitzea da.

Prozesu honetan hiru pauso jarraituko dituzte herritarrek eta Udalek. Batetik, ingurumen, gizarte eta ekonomia arloak jasotzen dituen diagnostiko bat egingo dute. Era berean, herria gaur egun nola aurkitzen den ere aztertuko dute. Lan horretarako, kontratatutako entresa edo kontsultorak datu bilketa bat egin eta herritarren egoera zein den azaltzen duen txosten bat burutuko du.

Bigarren pausoa, berriz, herritarren egungo egoera zein den ikusi ondoren, herritarrek aurrera begira nolako herria nahi duten pentsatzea izango da, horretarako helburu zehatz batzuk finkatuko direlarik.

Azken urratsa, finkatutako helburuetara iristeko egin beharrekoak zehaztea izango litzateke, horretarako Ekintza Plana deiturikoa osatuz. Ekintza Plan horiek urtero berrikusi beharko dituzte, izan ere, Tokiko Agenda 21a etengabeko prozesuan barneraturik dagoen proiektua izanik, epe luzera ikusten diren emaitzak ditu.

Prozesu guzti honetan oso garrantzitsua da herritarren parte-hartzea, inork ez baitu herria bertako herritarrek baino hobeto ezagutzen. Horregatik, Agenda 21aren barnean

zeresan handia izango dute herritarrek, beraien iritzia, asmoak edota ideiak proposatzeko aukera izango dutelarik.

Agenda 21a mundu osoko udalerritan askotan martxan jarritzen ari den proiektua da. Era honetan, mundua pixka bat hobetzea lortu nahi da, bakoitzak bere herri mailan lan egin. Hortik dator hainbeste alditan erantzuna izan den honako esaldia: *Pentsatu modu globalen, jardun modu lokalean.*

Gai honen inguruan informazio gehiago eskuratu nahi duenak honako hiru aukeretatik baten bidez egin dezake: 943 67 38 24 telefono zenbakira deituz, honako helbide elektronikora e-maila idatziz sanlorenzo21@euskalnet.net edota nahiago izanez gero San Bartolome 2an aurkitzen den bulegora agertuz. ◀

GIZARTEA ▶

NAIARA GARZIA

Antonia Ordozgoiti Urrutia eta bere oinordekoen inguruko misterioak amaitu dira, aspalditik ezaguna baita hiru iloba eta koinatu bat direla bere oinordekoak. Baina istorioak berak sortzen duen harridura ez da itzali, izan ere, jendearen emigrazioak, gerra, denbora eta bi kontinenteen arteko distantziaren gainetik familia bera nabarmendu dela begibistakoa da kasu honetan.

Duela bi hilabete inguru Antonia Ordozgoitiren istorioa hainbat herritan zabaldu zen, eta haien artean, Leitzan. Orduan herriko Udalak posta elektronikoko bat jaso zuen, John Frith izeneko batek Alemanian banketxe batetik bidalia, testamenturik gabeko nazioarteko herentzietan espezializatua dagoen Hoerner Bank AG delakotik. Aipatutako gutun horretan zera azaltzen zen, Antonia Ordozgoiti Urrutia duela bi urte hil zela Kanadan testamendurik egin gabe. Berak utzitako 210.600 euroentzat oinordeko bila omen zebiltzan eta lehen bait lehen berria zabaltea eskatzen zuten gutunean. Hori dela eta, herriko tablolean jarri zuten gutuna, eta berehala jendearen mugimendua nabaritzen hasi zen.

Herentziaren eskisak

Juan Bautista Irazokik, Leitzako abade ohiak, gutun horren ondorioz sortutako zalaparta bizitu zuen, herriko zenbaitek beregana jo baitzuten. Kanadan hildako emakume honen ama Leitzan jaio izanarik aukera gehiago irekitzen zituen, eta horrexegatik bat baino gehiago beren zuhaitz genealogikoa osatu nahian ibili zen.

Patxi Saenz Leitzako alkateak ere harriduraz ikusi zuen gai honek sortutako zalaparta, irailan jasotako gutunari ez baitzion garrantzi berezirik eman. «Egun batetik bestera komunikabideak deika hasi ziren». Azaroaren 3an Euskadi Irratian hitz egin baino lehenago, John Frith delakoarekin harremanetan jarri eta kontua nola zegoen galdetu zion. «Ordurako benetako oinordekoak zeintzu ziren bazekiten», Berri hau irratan zabaltzearekin batera hainbat herritarren ilusio-



Tolosan geratu zen Antoniaren anaia bere lagun taldearekin. ▻

Antonia Ordozgoitik utzitako diruaren eskisak

Antonia Ordozgoitiren oinordekoek bere heriotzaren berri bazekiten arren, Leitzan hauen bila ibili ziren



Maria Angeles Belza eta Julian, bere senarra, Antoniaren anaia. ▻

ak bertan behera gelditu ziren, argi baitzegoen Leitzera ez zela herentzia iritsiko. «Irratian hitz egin nuen goizean bertan Frithek deitu zidan, oinordekoak Tolosaldean aurkitu zituztela esateko», dio Patxi Saenzek.

Nazioarteko herentzietan espezializatuta dagoen banketxe alemaniar horrek bidalitako gutuna hainbat herritako Udalek jaso zuten, ez Leitzak soilik, Tolosak, esate baterako.

Gainera, bertako epaitegira iritsi zen Antonia Ordozgoitiren heriotzaren jakinarazpena, han baitago duela bi urte hil zen emakume honen jaiotze-argiria. Honetaz gain, Tolosan bizi da, 4 oinordeetako bat. Gainontzeko hirurak, berriz, Donostialdean bizi dira.

Aspaldiko kontua

Antonia Ordozgoitiren anai gazteenaren alarguna eta honen hiru semeak, oinordekoak direnak, erabat harriduta gelditu dira komunikabideetan sortu den zalaparta hau dela eta, duela bi urtetik bai baitzekiten haien izeba hila zela. «Tarteka gutunak idazten genizkion elkarri, eta denbora batean bat bakarrik ere ez jaso ondoren, Kanadako enbaxadorekin harremanetan jarri nintzen eta izebaren heriotzaren berri eman zidaten», dio Alejandro Mugica Beltzak. Bi hilabete beranduago bizirik gelditzen zen anai bakarra hil zen, eta bere heriotzarekin, gauzak asko zaildu direla azpimarratu du Alejandrok, izan ere bi urte daramatzate tramiteetan murgilduta, Antoniaren oinordeko direla erakusteko. «Abokatua Kanadako ordezkariarekin negoziatzen dabil».

Antonia Ordozgoiti

Antonia 1921eko urtarrilaren 2an jaio zen Tolosan, bere gurasoak, Magdalena Ordozgoiti Urrutia eta Manuel Benito Mugika Abalia, ezkondu baino lehen, eta horregatik bere amaren abizenak eraman zituen beti. Antoniaren gurasoak ezkondu ondoren beste hiru seme-alaba izan zituzten: Estefania, Nicolas eta Julian. Gerra ondoren ez zen erraza eta egoerak bultzatuta Magdalena eta Manuelen seme-alabek lana bilatzeari ekin zioten, han eta hemen. Estefania, Antonia eta gero zaharrena zena, A Coruñaara joan zen gazterik. Nicolas Hernanin gelditu zen eta gazteena, Julian, Tolosan. Azken hau izandu zen ezkondu eta seme-alabak izan zituen bakarra. Antoniak berriz urrutirago jo zuen eta 1940. urtearen inguruan Parisera joan zen. Bertan 23 urte egin zituen, eta tarte horretan Tolosara joan-etoerriak egin zituen, bere familia ikustera.

1963an, berriz, Kanadara joatea erabaki zuen, Quebec-erara hain zuzen ere, eta hori familiari jakinarazteko Tolosara joan zen Antonia, azkeneko.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Etorकिन. Etorकिन adingabeen gainean azkenaldian zalantza ugari sortu dira. Gai honen inguruan, zein da zure iritzia? Zergatik sortu da? Egoera honen aurrean, zein da irtenbidea? Eman zure iritzia eskualdeko egunkariaren web orrian!

ALEMANIATIK GUTUNA

Banketxe batek Kanadan testamenturik egin gabe emakume bat hil zela jakinarazi zion Leitzako Udalari

ARBASOEN BILA

Antoniaren ama Leitzan jaioa zela jakitean, batzuk abadearengana jo zuten, haien zuhaitz genealogikoa osatzeko

ZORTERIK EZ

Leitzako alkateak, irrati bidez, Leitzan Antonia Ordozgoitiren oinordekorik ez zela jakinarazi zuen

OINORDEKOAK

Antoniaren hiru anai-arrebetatik bakarra ezkondu zen, eta honen alarguna eta hiru seme-alabak dira oinordekoak

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. Kultur Astearen baitan, 20:00etan, kultur aretoan, *Euskal Herrian marxan dagoen prozesua eta autodeterminazioa* hitzaldia.

Albiztur. *Loa: Adineko pertsonen ondo lo egin beharra* izeneko hitzaldia izango da 17:30ean Kultur Etxean. Hizlaria Jose Luis Martin izango da.

Leaburu. KZguneko tutorearen bisita, 09:00etatik 13:00etara.

Txarama. Osasun kultur gunean, 16:00etatik aurrera Txaramako adinekoekin ikastaro bat antolatuko eta irteerei buruz hitz egiteko bilera egingo dute. Edozein duda izanez gero deitu 943682228 zenbakira.

Tolosa. Pipaon-Herrera mendatea irteera antolatu du Alpino Uzturrek iganderako. Izen-ematea, elkartean (943 652789).

ZINEMA

Alegia. Gaztetxean, 21:30ean, Shari Springber-en eta Robert Pucini-ren *American Splendor* filma ikusgai

ERAKUSKETAK

Alegia. Kultur Etxean, eskulan ikastaroetan egindako lanen erakusketa ikusgai, hil honen 24a bitarte.

Tolosa. Matxin Labaien tolosarraren oleozko pinturak ikusgai, Lanbroa tabernan, abenduaren 2ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Etxebizitzak, gertuago...

TOLOSA ▶ Voith-Gorostidi eremuko etxebizitzak eraikitze lehen urratsak eman dituzte; izan ere herenegun bota zituzten inguruko lehen eraikinak



Herenegun arratsaldean ekin zieten lanei Voith-Gorostidiko zonaldean; argazkian, eraikina botatzen. N. G.



Voith-Gorostidi eremuaren urbanizazio proiektuaren irudi bat. HITZA

ERREDAKZIOA

Tolosa askoren etorkizuneko esperantza dira Voith-Gorostidi eremuan eraikiko dituzten etxebizitzak. Hori dela eta, adi-adi begira izango dira ziurrenik egunotan agian euren etxebizitza izango direnen eraikitze-lanei. Izan ere, herenegun arratsaldean eman zuten zonalde honetako urbanizazio proiektuaren lehen urratsa, eraikinak botatzen hasteara, hain zuzen ere. Hautsa inguru osora zabaldu zen, oinezkoen jakinmina piztu.

Udalak 644 eskaera jaso ditu. Orotara, 675 etxebizitza eraikiko dituzte eremu horretan, eta horietatik, 290 toki babesekoak edo tasatuak, 135 babes ofizialekoak eta 250 libreak izango dira. Prezioei dagokionez, tasatuak, 105 metro karratukoak, 192.000 euro inguru balioko dute, 32.000.000 pezeta, alegia.

Iragan hilean itxi zuten eskaerak jasotzeko epea eta orain eskatzaileek zozketan parte hartzeko jarritako baldintzak betetzen dituzten aztertzen ari dira. Urtarrila amaieran behin-beineko zerrenda plazaratuko dute. Ondoren, 15 eguneko epea izango dute herritarrek, alegazioak egiteko. Behin zerrenda finkatuta, udaberri-udaldera egingo dute zozketa. Eskatzaileen artean, berriz, 25 eta 35 urte artekoak izan dira gehiengoak, 36 eta 50 urte artekoak ondoren, 18 eta 24 urte bitartekoak gero, eta 50 urtetik gorakoak gainerakoak. Bestalde, %75 inguru banakoak dira, eta bikoteak gainerakoak.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletzeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...